

# EUSKARAREN PRESENTZIA BILBOKO MERKATARITZA ESTABLEZIMENDUEN WEB ORRIETAN

---

Bilbon web orria duten 374 merkataritza establezimenduen %10k euskaraz ere eskaintzen du baliabide hau. Hau da Siadecok Biribilko egitasmoaren barruan egindako azterketan baieztatu ahal izan duena.

Beren web orria euskaraz eskaintzen duten establezimenduen artean, azpimarratzekoak dira liburu eta paper-dendak, baina badira ere moda eta osagarrien dendak, etxerako tresnen establezimenduak, supermerkatuak, etab.

Bestalde, aztertutako web orrien %20 inguru ingelesez ere eskaintzen dira, eta %5 inguru frantsesez. Beste hizkuntzaren batean eskainitakoak (katalana, portugesa, alemana, etab.) %8 inguru dira.

Merkataritza establezimenduen web orrietako hizkuntzak	Kopurua	% (web orria duten 374 establezimenduekiko)
Euskara	36	9,6
Gaztelania	368	98,4
Ingelesa	70	18,7
Frantsesa	21	5,6
Beste hizkuntzak (katalana, portugesa, alemana, bestelakoak)	29	7,8

*Iturria: Siadeco, 2009*

Web orria duten Bilboko establezimenduen %30k on line erosteko aukera eskaintzen du, hau da, hiriko establezimendu guztien %2,9.

On line erosteko aukera ematen duten web orri guztien %12,4 euskaraz daude, hau da, hiriko merkataritza establezimendu guztien %0,4.

Euskaraz dauden web orri guztien %38,9 salerosketa elektronikorako aukera ematen du.

		Web orria dutenak	Web orria euskaraz dutenak
On line salerosketa		%	%
Bai		30,2	38,9
Ez		65,8	52,8
Besterik		2,7	8,3
Zehaztu gabe		1,3	0,0
<b>Guztira</b>	<b>%</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
	<b>% (establezimenduen unibertsoarekiko)</b>	<b>9,6</b>	<b>0,9</b>
	<b>Abs.</b>	<b>374</b>	<b>36</b>

*Iturria: Stadeco 2009*

Azterketa hau egiteko, Biribilko komunikazio kanpainan establezimenduak berak emandako web orriak aztertu dira, eta baita Bilbao Dendak merkatari eta ostalari elkarteko web orrian jasota dauden enpresa eta establezimenduetako web orriak ere.